

GURE IRITZIZ

EHUNGARRENEAN

«1977, urtarrila, *Jakin* aldizkaria berriro kaleratu da, Administrazioak beharturiko zazpi urteko isilunearen ondoren», dio euskal kulturaren azken 20 urteotako kronikak (J. M. Torreal-dai, *Euskal Kultura Gaur. Liburuaren mundua*, 672. or.).

Urte bizia 1977 hura. Urte hartako urtarrilean legeztatu zuten ikurrina eta ekainean izan ziren lehen hauteskundeak Madrilgo parlamenturako, eta Askatasunaren Ibilaldia egin zen ospetsuki uda hartan. Hainbat ekimen berri gertatu zen euskal gizartean, orain dela hogeitau urte: *Deia* eta *Egin* egunkariak sortu ziren; orduan egin zen aurrenekoz Kilometroak, UEU Iparraldetik Iruñera aldatu zen. 1977ko urtarrilarekin batera kaleratu zen gure aldizkaria, *Zabal* eta *Hitz* euskarazko aldizkariak hil berriak zirelarik, eta *Zehatz* agertu baino lehenxeago. Urte horretanxe argitaratu zuen *Natur Zientziak Hiztegia*; eta udazken horretan abiatu zen UZEI, euskarazko hiztegi tekniko-berezituak lantzeko programarekin.

Jakin, ordea, ez da orduan jaioa... Hogei urte beteak zituen ordurako (1956an jaioa), eta 35 zenbaki zituen kaleratuak debeku politiko-administratiboen artean (azkena 1969koa). Igarotako urte zailak gogoratuz eta gogoraraziz berrabiatu zen *Jakin*: «Hogei urte geroago», lehen zenbakiko editorialaren titulua. Itxaropenez beterik ekin zion, ekin ere. Lehen aldiko hogeiak eta bigarreneko beste hogeioak gogoratuz, baina aurrera begira ekiten diogu etorkizunari. «Berrogei urte geroago».

Aldizkariaren bigarren hogeiko urtealdia lasaiagoa izan da Administrazioaren aldetik; eta garaiz heldu ahal izan da harpidedunaren eta irakurlearen eskuetara. 100. zenbakia ospatzeko moduan gaude, beraz. Baina lehenengo bizialdia eta hura ahalbideratu zuten sortzaile, zuzendari eta harpidedunak ezin achantzi orain. Haiekin guztiekin nahi ditugu ospatu lehen aldiko 35 zenbaki haiek ere, bigarren aldiko 100 zenbakiekin batera.

Baina ezin daiteke esan, urte errazak izan direnik azken 20 hauek ere. Hiru puntu adieraziko ditugu:

- Bizi izan dugun ingurune politiko katramilatuan zer politikoa gailendu da Euskal Herriko dinamika sozialean, kultur ekintza, eta bereziki euskal kulturgintza indarrez baldintzatuz.

- Hego Euskal Herriaren erakundetze berriaren garaia izan dugu, eta euskalgintzak eta euskal kulturgintzak bultzada nabariak izan dituzte horietako batzuren aldetik; baina —aukera galduez beterik dago euskalgintzaren bidea— erakunde berrietan ipinitako esperantza moztuta ere geratu da. Esana dugu horretaz zerbait.

- Euskarazko komunikabideetan eta bereziki aldizkarigintzaren eremuan aldaketa handiak gertatu dira azken hogei urteotan. Aipatuak ditugu 1977an abiatutako batzuk. Gerora EITB, *Euskaldunon Egunkaria* eta dozenaka herri-aldizkari sortu eta indartu dira. Gainera hainbat alorretako aldizkari berezitu kaleratu dira urte hauetan, euskara hutsezkoak: *Isilik* (1982), *Zutabe* (1983), *Unesco-ren Albistaria* (1984), *Larrun* (1985), *Senex* (1986), *Ele* (1986), *Enseiucarrean* (1986), *Tantak* (1989),

Ekaia (1989), *Bat. Soziolingustikako aldizkaria* (1990), *Uztaro* (1990), *HikHasi* (1995), *Eleria* (1996), etab.; ahantzi gabe, haurrentzako eta irakaskuntzako aldizkariak eta erakundeetako bestelako hainbat aldizkari eta buletin, eta sortu eta hil diren edo biziberritu eta aurrera dirauten literatur aldizkariak. Horietako bakoitzak bere lekua bilatu du euskal gizartean: erosleen eta irakurleen artean. Eta *Jakin*-ek ere bere kokapen berria eratu behar izan du ingurune berri horretan.

Berrogei urte beteak ditu *Jakin*-ek, eta aurrera goaz, 50.enera heltzeko ilusioarekin. Horixe izan daiteke markatu genezakeen hurbileko epea. Aurrera bagoaz, eta ez inertziaz edota bizibehar soilez. *Jakin*-ek euskal gizartean eta kulturagintzan duen eginbeharrean sinesten dugulako goaz aurrera, zailtasun eta guzti, aurrerantzean ere izango ditugun zailtasunak ere gainditzeko asmoz.

Uste baitugu gure aldizkariak baduela betebeharrak sozio-kultural garrantzizkorik gaurko munduan, bereziki gure Herrian eta kulturagintzan, mass-mediaren eta komunikazio sozialaren mundua iraultzen ari den garai honetan, hain zuzen ere.

Hasieratik ipinitako helburuei eutsiz, *Jakin* kultur aldizkari honek pentsamendu- eta saio-aldizkari kritikoa izan nahi du (1. zenb., 1977, 7. or.); eguneroko gertakari sozial, politiko eta kulturalen etengabeko zurrunbiloaren barruan, gogoeta pausatua den lekua. Mass-media uniformizatzaileen plazan, pentsamendu anitzaren eta kritikoaren eztabaidagunea izan nahi du *Jakin*-ek, euskaldunaren ikuspuntutik. Pentsamenduaren krisiak geure horizonteak galtzeko arriskutan ipini gaituen honetan, helburuak eta bideak iradoki nahi ditu Herri eta Gizarte honi begira.

Hori dena, berriz, zuekin, idazle, irakurle eta harpidedunokin, egin ahal izan dugu; eta orain arte bezala, hala izango dela uste dugu aurrerantzean ere. Zuek zarete aldizkari honen oinarri eta euskarri nagusiak.

Zuek zarete *Jakin*-en benetako egileak eta eragileak.